



# COVID PASAPORTEA APLIKATZEA

Azaroaren 27tik aurrera, 12 urteko eta 12 urtetik gorako biztanleek **COVID pasaporte**a aurkeztu beharko dute honako hauetara sartzeko:

- **Jatetxeak** eta jatetxe-barrutiak, 60 lagunetik gorako edukiera izanez gero.
- **Diskotekak** eta **dantzalekuak**, **kafe-ikuskizunetarako** lizentzia duten establezimenduak eta **lizentzia berezia duten tabernak** (azken horietan 00:00etatik aurrera).
- **Barrualdean egiten diren ekitaldi jendetsuak**, janari eta/edo edaria hartuta eta 1.000 pertsonatik gora direnean.

Egiaztapena **jaitsi daiteke Osasunaren Karpeta Pertsonalean** eta mugikorrean gorde edo inprimatu. Hiru kasu aurreikusten dira:

- Txertaketa-ziurtagiria (pauta osoa).
- Proba-ziurtagiria (PCR negatiboa azken 72 ordutan edo antigenoen proba negatiboa azken 48 ordutan). Autotest probek eta farmazietan egindakoek ez dute balio.
- Osatze-ziurtagiria (COVID-19a igaro ondoren ematen da, eta 180 eguneko balioa du).

Etxaurin, 2021ko azaroaren 26an

Idoia Aritzala Etxarren

Etxauriko alkatea